

ALTZAKO ARRIA PARKEA TAPATZEAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

EH Bildu udal taldeko zinegotzi Josu Mirena Ruiz naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua babesean, ondoko MOZIOA aurkezten diot azterkizun Udalbatzari, Altzako haur jolastokiari estalkia jartzea dela eta. Gune Publikoen (Obrak eta Zerbitzuak) Batzordeari urtarrilaren 14an aurkezturiko interpelazioa da mozio honen aurrekaria.

JUSTIFIKAZIOA

Iazko udaberrian, 7.742.322,63 euroren inbertsioak egitea onartu zuen alkateak. Inbertsio horien artean, Proiektu eta Obrak programako Altzako Parke bat Tapatzea izeneko 601.99.03 kontu sailekoa dago; eta 325.490 euro ditu.

Inguru hartan egindako partaidetza prozesu batean lehenetsi zuten inbertsio hori aurreko legealdian. Gaur arte, orain den udal Gobernuak, ordea, ez du pausorik ere eman obra hori egiteko. Haur jolastokiak estaltzea donostiarrek lehenesten eta eskatzen duten gauzetako bat da. Zenbateraino eta gure taldeak udal batzorde bat eratzea eskatzeraino, udal talde eta teknikariek nahiz auzo elkarteek parte hartzeko modukoa, baina orain den gobernuak taldeei eta elkartei ez zien parte hartzen utzi. Hala, Gobernu honek predikatu bai baina egin gutxi egiten duen bertute bat da gardentasuna.

Hirigintzako zinegotzi ordezkariak batzordean erantzun zuenez, amaituta dago proiektua eta aurrera atera nahi dute azpiegitura hori. Honelako garaian egonda, sail hori 2016ko aurrekontuari atxikiko zaiolakoan gaude.

Auzoan proiektu horrek ilusio handia eragin duenez gero, hona hemen gure KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio sei hilabeteko epearen barruan hasteko Altzako Harria parkeko haur jolastokiari estalkia jartzeko lanak.

Donostian 2016ko urtarrilaren 22an

Josu Mirena Ruiz Martin,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia.